koalifikazioen eta lanbide heziketaren euskal institutua
Instituto vasco de cualificaciones y formación profesional

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

# HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

## 10. modulua: **Lehen Laguntzak**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

## HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 10. modulua: **Lehen Laguntzak**


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http//www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2009ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 50 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Egilea: | Inés Araico Galdós |
| Koordinazioa: | Víctor Marijuán Marijuán<br>KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA<br>INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL<br>www.kei-ivac.com |
| Diseinua eta diagramazioa: | TRESDETRES |
| Inprimatzea: | mccgraphics |
| L.G.: | VI 393/2009 |



Iraupena: 60 ordu
UDen kopurua: 6

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

# AURKIBIDEA


UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA — 04. or.

0 — 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena — 05. or.

1 — 1. unitate didaktikoa: Lehen laguntzak — 08. or.

2 — 2. unitate didaktikoa: Larrialdietan hasierako egitea eta oinarrizko bici-euskarriko teknikak aplikatzea — 12. or.

3 — 3. unitate didaktikoa: Traumatismoetan, zaurietan, odoljarioetan eta shocketan lehen laguntzako teknikak aplikatzea — 16. or.

4 — 4. unitate didaktikoa: Larrialdi medikoetan eta bestelako egoeretan lehen laguntzako teknikak aplikatzea — 21. or.

5 — 5. unitate didaktikoa: Lagunaza psikologikoa eta komunikazioteknikak osasen-larrialdietan — 24. or.

6 — 6. unitate didaktikoa: Egoera konplexuetan lehen laguntzako teknikak aplikatzea (bateratzea) — 28. or.

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

| EDUKI MULTZOAK | | | | UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK | IRAUPENA |
|---|---|---|---|---|---|
| B 1 | B 2 | B 3 | B 4 | | |
| | | | | UD 0. Moduluaren aurkezpena. | 1 h. |
| x | | | | UD 1. Lehen laguntzak. | 7 h. |
| x | x | x | x | UD 2. Larrialdietan hasierako balorazio egitea eta oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. | 12 h. |
| x | x | x | x | UD 3. Traumatismoetan, zaurietan, odoljarioetan eta shocketan lehen laguntzako teknikak aplikatzea. | 12 h. |
| x | x | x | x | UD 4. Larrialdi medikoetan eta bestelako egoeretan lehen laguntzako teknikak aplikatzea. | 12 h. |
| x | | | x | UD 5. Laguntza psikologikoa eta komunikazio-teknikak osasun-larrialdietan. | 6 h. |
| x | x | x | x | UD 6. Egoera konplexuetan lehen laguntzako teknikak aplikatzea (bateratzea). | 10 h. |
| | | | | GUZTIRA | 60 ordu |

*1. multzoa: Larrialdietan laguntzaren hasierako balorazioa egitea.*
*2. multzoa: Bizi-euskarriko teknikak aplikatzea.*
*3. multzoa: Immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzea.*
*5. multzoa: Laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzea.*

| 0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA | | | | | | Iraupena: 1 ordu |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.<br>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.<br>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.<br>4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.<br>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. | | | | | | |
| EDUKIAK | | Multzoak | | | | |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| PROZEDURAZKOAK | • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.<br>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.<br>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.<br>• Moduluaren helburuak.<br>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. | | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena. | 1 | 10 m. | X | X | Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da. | Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango. | Ez da bitarteko berezirik behar. |
| J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena. | 2-4 | 10 m. | X | X | Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du. | Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste. | Arbela.<br>Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.<br>Kronogramak<br>Informazioa duten fotokopiak. |
| J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena. | 2-3 | 10 m. | X | X | Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.<br>Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da. | Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna. | Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar. |
| J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa. | 5 | 30 m. | X | X | Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez. | Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari. | Galdera sortak. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.<br>• J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.<br>• Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. |

<table>
<tr><th colspan="2">1. unitate didaktikoa: LEHEN LAGUNTZAK</th><th colspan="4">Iraupena: 7 ordu</th></tr>
<tr><td colspan="6">JE 1: Larrialdi batean laguntzaren hasierako balorazioa egiten du: arriskuak, eskuragarri dauden baliabideak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.<br><br>Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Larrialdi-sistemen eta larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideen antolamendua azaltzea.<br>2. Laguntza-faseak identifikatzea.<br>3. BAS jokamoldea aplikatu eta bere egitea.<br>4. Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatzea.<br>5. Eremua prozedura egokiaren arabera babestea.<br>6. Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egitea.<br>7. Istripua izan duten pertsonak manipulatzean norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatzea.<br>8. Norbera babesteko elementuak edo bestelakoak erabilita, istripua izan duenari laguntza ematean laneko arriskuen prebentzioaren beharra baloratzea.<br>9. Lehen esku-hartzaile gisa ematen den laguntzaren ezaugarriak identifikatzea.<br>10. Zein katsutan edo egoeratan zuzenean esku haru behar ez den zehaztea.</td></tr>
<tr><th colspan="2" rowspan="2">EDUKIAK</th><th colspan="4">Multzoak</th></tr>
<tr><th>1</th><th>2</th><th>3</th><th>4</th></tr>
<tr><td>PROZEDURAZKOAK</td><td>• Esku hartzeko egoerak identifikatzea.<br>• Abisu-sistemak, informazioa igortzekoak eta sorospenekoak erabiltzea.<br>• Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea.<br>• Hasierako babes-teknikak aplikatzea. Jardun-eremuak antolatzea.<br>• Arrisku pertsonalen prebentziorako eta babeserako materialak hautatu eta erabiltzea.<br>• Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.</td><td>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X</td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>KONTZEPTUZKOAK</td><td>• Lehen laguntzen helburuak. Lehen laguntzekin lotutako terminologia. Arriskua. Istripuak: motak eta ondorioak. Kaltea. Urgentziak. Larrialdiak. Katastrofeak.<br>• Jardunbide orokorrak. BASa. Babes-sistemak. Abisu-sistemak. Informazioa emateko protokoloak. Sorospen-sistemak. Laguntza-katea. Larrialdietarako sistemak.<br>• Giza gorputza. Sistema eta organo nagusiak, anatomia topografikoa. Zeinuak eta sintomak.<br>• Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala. Bere jardunaren mugak.</td><td>X<br>X<br>X<br>X<br>X</td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | • Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arrisku pertsonalak eta prebentzio- eta babes-neurriak.<br>• Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak. Erabilera. | X | | | |
| JARRERAZKOAK | • Bere jardunaren mugez jabetzea.<br>• Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea. | X<br>X | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK<br>Ir. | <br>Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J1-E1 UDaren aurkezpena. | | 0,5 h. | X | X | Jarduera informal batekin has daiteke, ikasleek moduluarekiko dituzten itxaropenak azaldu ditzaten: moduluaren eta beren ikasketen arteko lotura nola ikusten duten edota zer ikastea espero duten.<br>Ondoren, irakasleak UDrako plana azalduko du. | UDaren plana ezagutzeko.<br>Ikasleek arlo horretan dituzten informazioa eta itxaropenak ebaluatzeko. | |
| J2 Lehen laguntzen alderdi orokorrenei buruzko azalpena eta ariketak egitea.<br>J2.1 Idatzizko materialaren aurkezpena. | 1, 2, 3 | 0,25 h. | X | | Irakasleak ahozko azalpena egingo du eta idatzizko materiala aztertuko du. | Modulu osoan zehar erabili beharreko terminologia ezagutzeko.<br>Lehen laguntzetako teknikak aplikatzearen helburuak zein diren ulertzea. | Apunteak. |
| J2.2 Terminologiari, istripuei, istripu motei eta horien ondorioei buruzko ariketak ebaztea. | | 0,75 h. | | X | Ariketak banaka ebatziko dira eta ohiko terminologia erabiliko da. Behar denean, terminologia azalduko da. | | Apunteak.<br>Ariketak. |
| J2.3 Giza gorputzaren aparatu eta sistema nagusiak, terminologia... azaltzea. | | 1 h. | X | | Anatomiari, fisiologiari eta patologiari buruzko azalpena laburra izango da, lortu nahi denaren erreferentziarik galdu gabe.<br>Aparatuak eta sistemak erraz ikusi eta kokatzeko materialak erabiliko dira. | Giza gorputzari buruzko edukiak errepasatzeko. | Ikus-entzunezko materiala.<br>Eskeletoa.<br>Gizaki klastikoa.<br>Kartelak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J3 Kasuak aztertzea.<br>J3.1 Lehen laguntzak ematean jarduteko planteamendu orokorra (BAS) azaltzea. | 1, 2, 3, 5, 6 | 0,25 h. | X | | Hasteko, irakasleak sarrera labur bat egingo du eta, ondoren, kasuak aztertzera eta egoerak *in situ* antzeztera pasatuko da (adibidez, istripua izan duenarengana heltzeko sarbidea prestatzea, informazioa 112 telefonoan jakinaraztea...). | Ikasleek BAS jokamoldea ohiko jardunbidetzat hartzea eta hura erabiltzen ohitzea. | Apunteak.<br>Kasuak. |
| J3.2 Ahal dela, babesaren (eremua antolatzea, norbera babestea...), abisuaren (112 telefonoa, informazioa...) eta sorospenaren erakustaldia egitea. | | 0, 5 h. | X | X | | | |
| J3.3 Azalpena: larrialdi-sistemen, laguntza-katearen, jardunbideen.. funtzionamendu orokorra. | | 0,25 h. | X | | | Larrialdi-sistemen funtzionamendu orokorra ezagutzea. | |
| J4 Lehen laguntzetako jardunekin lotutako kasuak irakurtzea.<br>J4.1 Kasuak irakurri, baloratu eta horiei buruz gogoeta egitea. | 8, 9, 10 | 1 h. | X | X | Hautatutako kasuek eztabaida piztu beharko dute jardunaren mugen, ez jardutearen, arrakastaren eta hutsegitearen, beldurraren edo frustrazioaren... inguruan.<br>Garrantzitsua da ikasleek, esaterako, segurtasun-ezaren, beldurraren, ausarkeriaren... sentimenduak adieraztea, gai horiei buruz hitz egin ahal izateko. | Sorospenaren jardun-esparrua, erantzukizun-maila eta jardunaren mugak ulertzeko.<br>Egoera horien aurrean sortutako sentimenduak adierazten nolabait ohitzea. | Kasuak. |
| J4.2 Lehen esku-hartzailearen erantzukizunei, jardun-mugei... buruzko azalpena. | | | X | | Azalpena, batez ere, alderdi objektiboenetan oinarrituko da, hala nola: erantzukizuna, lege-esparrua... | Sorospenaren jardun-esparrua, erantzukizun-maila eta jardunaren mugak ulertzeko. | |
| J5 Laneko arriskuei, prebentzioari eta babesari buruzko azalpena.<br>J5.1 Arriskuei buruzko azalpena. | 5, 6, 7, 8, 9 | 0,5 h. | X | | Aukera bat da lehendabizi arriskuak azaltzea eta, ondoren, prebentzioko eta norbera babesteko sistemak aurkeztu ahala, haien erabileraren erakustaldi bat egitea. | Arrisku pertsonal garrantzitsuenak ezagutzeko eta prebentzio-neurriak erabiltzen ohitzeko. | Apunteak.<br>Prebentzio- eta babes-materialak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J5.2 Prebentzioko eta norbera babesteko sistemen erabileraren erakustaldia. | | 0,5 h. | X | X | | | |
| J6 Botikineko materialaren erabilerari buruzko praktika.<br>J6.1 Botikineko material ohikoenei eta horien erabilerari buruzko azalpena. | 4, 9 | 0,25 h. | X | | Botikinaren osagaiak azaltzearekin batera, materialak aurkeztuko dira. | Oinarrizko botikin bat osatzen duten materialekin eta sendagaiekin ohitzeko. Ondorengo unitateetan, haien indikazioak eta erabilera hobeto ulertuko dituzte. | Botikina. |
| J6.2 Sendaketak egiteko, buxadura sinpleak egiteko, hesgailuak jartzeko... praktikak egitea. | | 0,75 h. | X | X | Praktikak taldetan egingo dira ikasgelako kideekin.<br>Irakasleak praktikak nola egiten diren behatuko du, oro har okerreko ohiturak zuzentzeko (adibidez, eskularrurik ez janztea, tratuan zakar izatea...), eta ez hainbeste osasun-laguntzaren kalitatea hobetzeko, hori beste UD batzuetan egingo baita. | | |
| E1 Berariazko ebaluazio-proba. Idatzizko ariketa. | | 0,5 h. | | X | Ariketa test bat edota banaka erantzuteko galdera motzak izan daitezke. | Ikasi dutena egiaztatzeko.<br>Ikas dezaten motibatzeko. | Idatzizko ariketa. |

| OHARRAK |
|---|
| • Unitate didaktiko honetan landutako edukietako batzuk sistematikoki jaso beharko dira hurrengo unitateen garapenean. Adibidez, prebentzio- eta babes-sistemak edota BAS jokamoldea sistematikoki erabiliko dira. |

| 2. unitate didaktikoa: LARRIALDIETAN HASIERAKO BALORAZIO EGITEA ETA OINARRIZKO BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA | Iraupena: 12 ordu |
|---|---|

*JE 1: Larrialdi batean laguntzaren hasierako balorazioa egiten du: arriskuak, eskuragarri dauden baliabideak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.*
*JE 2: Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.*
*JE 3: Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu. Horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.*
*JE 4: Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Istripua izan duenaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatzea.
2. Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezartzea.
3. Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzeko prozedurak deskribatzea.
4. Aireztapenaren/oxigenazioaren funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatzea.
5. Konorte-maila egiaztatzeko prozedurak deskribatzea.
6. Bizi-konstanteak hartzea.
7. Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatzea.
8. Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatzea.
9. Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea.
10. Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea.
11. Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egiteko teknikak aplikatzea.
12. Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea.
13. Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztea.
14. Lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritzea.
15. Komunikazioko eta laguntza psikologikoko teknika batzuk aplikatzea.
16. Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| PROZEDURAZKOAK | • Bizi-arriskuko egoerak aztertzea. | | X | | |
| | • Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea. Konortea, arnasketa, zirkulazio-zeinuak eta pultsua miatzea. | | X | | |
| | • Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. Alboko segurtasun-posizioan jartzea. | | | X | |
| | • Bizi-euskarriko teknikak identifikatu eta aplikatzea, eta egoera bakoitzerako ezarritako jardun-protokoloekin lotzea. | | X | | |
| | • Aire-bidea zabaldu, garbitu eta mantentzea. | | X | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | • Helduei, haurrei eta bularreko umeei bihotz-biriketako bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea. | | X | | |
| | • Desfibriladore automatikoak ezarritako protokoloen arabera erabiltzea. | | X | | |
| | • Komunikazioko eta laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea. | | | | X |
| | • Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatzea. | X | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Pazienteei hasierako ebaluazioa egitea. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Bizi-zeinuak. Shocka eta bihotz- eta arnasa-geldialdia. Jardun-protokoloak. | | X | | |
| | • Nerbio-sistemaren, arnas sistemaren eta bihotz- eta zirkulazio-sistemaren anatomofisiopatologia gogoratzea. | | X | | |
| | • Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea. | | X | | |
| | • Aire-bideen buxadura kentzea. Sistema eskuzkoak eta automatikoak. Kontrako eztarriko buxaduretarako teknikak. | | X | | |
| | • Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB). BBBa helduekin. BBBa haurrekin. BBBa bularreko umeekin. | | X | | |
| | • Bihotz-zirkulazioko eta aireztapeneko oreka berrezartzeko teknikak. | | X | | |
| | • Kanpoko desfibrilazio automatikoa. Teknikak. Ekipoen funtzionamendua eta mantentzea. Erabiltzeko oharrak. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeria. Egiaztapena. | | X<br>X | | |
| | • Segurtasun-jarrerak. Mobilizazioa eta immobilizazioa. | | | X | |
| JARRERAZKOAK | • Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. | | X | | |
| | • Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duenarekiko tratuan. | | X | | |
| | • Istripua izan duenari jardunean zehar konfiantza eta trankiltasuna emateko lasaitasuna eta interesa. | | X | | |
| | • Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. | | X | | |
| | • Bere jardunaren mugez jabetzea. | | X | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J1 UDaren aurkezpena. | | 0,5 h. | X | | Hasteko, BAS jokamoldea eta laneko arriskuen prebentziorako arauak errepasa daitezke; ondoren, UD honetan jorratuko diren egoera motak azaltzeko.<br>Garrantzitsua da UD honetako edukien | UDaren plana ezagutzeko. | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | inguruan motibazioa sortzea, aplikatzeko garaian berebizikoak baitira. | | |
| J2 Azalpena: pazientea, haren bizi-zeinuak... hasiera batean ebaluatzea.<br>J2.1 Azalpena.<br><br>J2.2 Praktika gidatua: bizi-konstanteak egiaztatu eta hartzea, zeinuak eta sintomak antzematea... | 1, 2, 3, 4, 5, 6 | 0,5 h.<br><br>1 h. | X<br><br>X | <br><br>X | Azalpenean, istripua izan duena baloratzeko alderdi guztiak aurkezten joan beharko da, eta inplikatutako fisiologia- eta patologia-alderdiak gogoraraziko dira.<br>Balorazio-teknika batzuk azaldu ahala, praktika gara daiteke. | Istripua izan dutenen lehen eta bigarren mailako balorazioak egiten ikasteko.<br>Esku hartzeko egoerak bereizteko.<br>Zeinuak eta sintomak antzematen trebetasuna hartzeko. | Manikiak.<br>Bizi-konstanteak hartzeko materiala. |
| J3 Azalpena: konortearen, bihotz-erritmoaren eta arnasbideen asaldurarekin lotutako larrialdiak.<br>J3.1 Azalpena.<br><br>J3.2 Filmak ikustea.<br><br>J3.3-E1 Errepaso-ariketak. | 7, 8, 9, 10, 11, 12 | 1 h.<br><br>1 h.<br><br>1 h. | X<br><br>X | X<br><br>X<br><br>X | Jarduera honetan, irudiren bat eman edota, baita ere, lehen laguntzetako material batzuk erakuts daitezke.<br><br>Irudiak benetako esku-hartzeenak nahiz irakaskuntzarako prestatutakoak izan daitezke.<br>Irakaslea jardunak azaltzen joango da edo gidoiren bat baliatuko du behaketa errazteko.<br><br>Zer egin behar den pentsatzeko eta deskribatzeko egoerak plantea daitezke (adibidez: zer egingo zenuke arnasten ez duen pertsona baten aurrean, edo lurrera erori eta erantzuten ez duen baten aurrean? edo, nola jardungo zenuke janaria kontrako eztarrian gelditzen zaion pertsona baten aurrean?). | Larrialdi motak eta jardun-sekuentzia ezagutzeko.<br>Esku hartzeko egoerak antzemateko.<br>Esku hartzeko sekuentzia azkar gogoratzeko.<br><br>Esku hartzeko sekuentzia azkar gogoratzeko.<br>Edukiak ulertu direla frogatzeko. | Ikus-entzunezko materiala. |
| J4-E2 Praktika gidatua: konorterik gabe dauden pertsonei arreta egitea, BBBa | 7, 8, 9, 10, 11, | 3 h. | X | X | Ikasle bakoitzak praktikak gutxienez behi egin beharko ditu, eta irakasleak | BBBaren erabileran trebetasuna hartzeko. | Oinarrizko bizi-euskarrirako ekipoak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| egitea eta aire-bideekin arazoak dituzten pertsonei arreta egitea. | 12, 14, 15, 16 | | | | horiek nola gauzatzen dituen behatuko du, jatorrizko protokoloarekiko desbideratzeak zuzentzeko. | | Heldu, haur eta bularreko ume baten manikiak. |
| J5 Azalpena: kanpoko desfibrilazio automatikoa, ekipoak, erabiltzeko oharrak, egoera bereziak...<br><br>J5.1 Azalpena.<br><br>J5.2 Erabilerari buruzko praktika gidatuak. | 11 | 1 h.<br><br>1 h. | X<br><br>X | <br><br>X | Irakasleak gailua eta haren erabilera azaltzen hasiko du jarduera. Azalpen horretan, irudien bitartez, profesionalek desfibriladorea nola erabiltzen duten erakuts daiteke.<br><br>KDA erabiltzeko praktika taldekide bakoitzak egingo du. | Kanpoko desfibriladore automatikoa (KDA) noiz eta nola erabili ikasteko. | KDA.<br>Manikiak.<br>Ikus-entzunezko materiala. |
| E3 Berariazko ebaluazio-proba.<br><br>E3.1 Testa.<br><br>E3.2 Ikasleen praktika autonomoa. | | 2 h. | X | X | Proba egiten hasi aurretik, taldekako errepasoa antola daiteke.<br>Testa banakakoa izango da.<br>Praktika autonomoa banakakoa izango bada ere, ez dituzte ikasle guztiek praktika guztiak egingo. | Ikasi dutena egiaztatzeko.<br>Ikas dezaten motibatzeko. | Manikiak.<br>Testa.<br>Praktika behatzeko erregistroa. |

| OHARRAK |
|---|
| |

| 3. unitate didaktikoa: TRAUMATISMOETAN, ZAURIETAN, ODOLJARIOETAN ETA SHOCKETAN LEHEN LAGUNTZAKO TEKNIKAK APLIKATZEA | Iraupena: 12 ordu |
|---|---|

*JE 1: Larrialdi batean laguntzaren hasierako balorazioa egiten du: arriskuak, eskuragarri dauden baliabideak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.*
*JE 2: Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.*
*JE 3: Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu. Horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.*
*JE 4: Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adieraztea.
2. Lesio mota eta dagokion jardun-protokoloa identifikatzea.
3. Traumatismoetan, zaurietan, odoljarioetan eta shocketan lehen laguntzak aplikatzea.
4. Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztea.
5. Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatzea.
6. Lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritzea.
7. Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatzea.
8. Mobilizatu eta immobilizatzeko metodoak aplikatzea.
9. Istripua izan duen pertsona posizio eta ingurune egokienean jartzea.
10. Gaixoak edo istripua izan dutenak material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea.
11. Komunikazioko eta laguntza psikologikoko teknika batzuk aplikatzea.
12. Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| PROZEDURAZKOAK | • Kasuak kasu jarraitu beharreko protokoloak identifikatu eta deskribatzea. | | X | | |
| | • Zauriak eta odoljarioak tratatzeko teknikak aplikatzea. | | X | | |
| | • Traumatismoak, kontusioak, zaintiratuak eta hausturak tratatzeko lehen laguntzako teknikak aplikatzea. | | X | | |
| | • Immobilizatzeko teknikak aplikatzea. | | | X | |
| | • Istripua izan dutenak mobilizatu eta lekualdatzeko teknikak aplikatzea. Jarrera. | | | X | |
| | • Bere eskumenaz kanpo aplikatzekoak diren teknikak identifikatzea. | | X | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| KONTZEPTUZKOAK | • Traumatismoak. Hausturak, zaintiratuak eta kontusioak. Traumatismo kraneoentzefalikoak eta bizkarrezurrenak. Anatomiaren, fisiologiaren eta patologiaren funtsak. | | X | | |
| | • Lehen laguntzak emateko teknikak. Jardun-protokoloak. | | X | | |
| | • Hesgailuak jartzea. Immobilizazioak. Lekualdatzea. Jarreraren kontrola. | | | X | |
| | • Arriskuak eta prebentzio-neurriak. | X | | | |
| | • Komunikazioa eta laguntza psikologikoa. | | | | X |
| | • Larruazaleko zauriak eta lesioak. Zauri motak. Anatomiaren, fisiologiaren eta patologiaren funtsak. | | X | | |
| | • Lehen laguntzak emateko teknikak. Jardun-protokoloak. | | X | | |
| | • Immobilizazioak. Lekualdatzea. Jarreraren kontrola. | | | X | |
| | • Arriskuak eta prebentzio-neurriak. | X | | | |
| | • Komunikazioa eta laguntza psikologikoa. | | | | X |
| | • Odoljarioak. Odoljario motak. Anatomiaren, fisiologiaren eta patologiaren funtsak. | | X | | |
| | • Lehen laguntzak emateko teknikak. Jardun-protokoloak. | | X | | |
| | • Immobilizazioak. Lekualdatzea. Jarreraren kontrola. | | | X | |
| | • Arriskuak eta prebentzio-neurriak. | X | | | |
| | • Komunikazioa eta laguntza psikologikoa. | | | | X |
| | • Shocka. Shock motak. Anatomiaren, fisiologiaren eta patologiaren funtsak. | | X | | |
| | • Lehen laguntzak emateko teknikak. Jardun-protokoloak. | | X | | |
| | • Hesgailuak jartzea. Immobilizazioak. Lekualdatzea. Jarreraren kontrola. | | | X | |
| | • Arriskuak eta prebentzio-neurriak. | X | | | |
| | • Komunikazioa eta laguntza psikologikoa. | | | | X |
| | • Trafiko-istripuak. Biktima anitzi arreta egitea. | X | | | |
| | • Pazienteak mobilizatzeko teknikak. Pertsonak lekualdatzea. Immobilizazioa. Jarreraren kontrola. | | | X | |
| JARRERAZKOAK | • Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. | | X | | |
| | • Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duenarekiko tratuan. | | X | | |
| | • Istripua izan duenari jardunean zehar konfiantza eta trankiltasuna emateko lasaitasuna eta interesa. | | X | | |
| | • Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. | | X | | |
| | • Bere jardunaren mugez jabetzea. | | X | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK<br>Ir. | <br>Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J1-E1 UDa hasi eta aurkezteko test bat ebaztea. | | 0, 5 h. | X | X | Testean, egoera hauetan izan beharreko portaeraren alderdi garrantzitsuenei buruz galdetu behar da.<br>Test sinplea, erraza eta azkar erantzutekoa izango da.<br>Testaren erantzunak azaltzen diren bitartean, UD honetako larrialdi-egoerak aurkez daitezke. | Aurretiazko ezagutzak ebaluatzeko.<br>Edukien inguruko interesa pizteko.<br>UDaren eta idatzizko materialaren plana ezagutzeko. | Testa.<br>Apunteak. |
| J2 Azalpena: larruazala, zauriak eta jardun-teknikak. | 1, 2, 3, 4, 5, 6 | 1 h. | X | | Idatzizko materiala azalduko da eta irudi batzuk emango dira. | Inplikatutako alderdi anatomofisiologikoak, lesioak eta lehen laguntzetako teknikak ezagutzeko. | Apunteak.<br>Ikus-entzunezko materiala. |
| J3-E2 Zauriak tratatzeari buruzko praktika gidatuak.<br>J3.1 Lan-protokoloa taldetan prestatzea.<br><br>J3.2 Mota desberdinetako zaurietan lehen laguntzak aplikatzea. | 2, 3, 5, 6 9, 11, 12 | <br><br>0,25 h.<br><br>0,75 h. | <br><br><br><br>X | X<br><br><br><br>X | Protokoloa talde txikitan prestatu behar da, eta praktikak nola egiten diren behatu ahala egingo dira zuzenketak. | Zauri motak antzemateko.<br>Zaurien lehen tratamenduan trebetasuna hartzeko.<br>Lortutako trebetasuna frogatzeko. | Botikina.<br>Manikiak. |
| J4 Azalpena: odoljarioak, shock-egoerak eta bihotza- eta zirkulazio-sistema. | 1, 2, 4, 5, 6 | 1 h. | X | | Idatzizko materiala azalduko da eta irudiak emango dira. | Inplikatutako alderdi anatomofisiologikoak, lesioak eta lehen laguntzetako teknikak ezagutzeko. | Apunteak.<br>Ikus-entzunezko materiala. |
| J5-E3 Praktika gidatuak: lehen laguntzak odoljarioetan eta shocketan. | 2, 3, 4, 5, 6, 11 | | X | | Irakasleak egoera hauetan nola lagundu erakutsiko du, eta zertan pentsatu behar den, lehentasunak zein diren... adieraziko du. | Odoljario motak antzemateko.<br>Odoljarioen eta shockaren lehen tratamenduan trebetasuna hartzeko. | Botikina.<br>Manikiak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J5.1 Irakasleak praktikaren erakustaldia egitea.<br><br>J5.2 Lan-protokoloa taldetan prestatzea.<br><br>J5.3 Mota desberdinetako odoljarioetan lehen laguntzak aplikatzea. | | 0,5 h.<br><br>0,25 h.<br><br>0,75 h. | <br><br><br><br>X | <br><br>X<br><br>X | <br><br>Protokoloa talde txikitan prestatu behar da, eta praktikak nola egiten diren behatu ahala egingo dira zuzenketak. | Lortutako trebetasuna frogatzeko. | |
| J6 Azalpena: traumatismoak, kontusioak, zaintiratuak eta hausturak. | 1, 2, 3, 4, 5, 6 | 1 h. | | | Idatzizko materiala azalduko da eta irudiak emango dira. | Inplikatutako alderdi anatomofisiologikoak, lesioak eta lehen laguntzetako teknikak ezagutzeko. | Apunteak.<br>Ikus-entzunezko materiala. |
| J7-E4 Praktika gidatuak: traumatismoak, kontusioak, zaintiratuak eta hausturak tratatzea. | 3, 5, 6, 9, 11, 12 | 2 h. | X | X | Praktika hasteko, taldetan lan-protokoloa prestatuko da. Ondoren, egoera bakoitzean lehen laguntzak aplikatuko dira.<br>Praktikak manikiekin eta ikaskideekin egingo dira. | Traumatismo motak antzemateko.<br>Traumatismoen lehen tratamenduan eta immobilizazio-tekniken aplikazioan trebetasuna hartzeko.<br>Lortutako trebetasuna frogatzeko. | Botikina.<br>Manikiak.<br>Immobilizatzeko materiala. |
| J8-E5 Immobilizazio- eta lekualdatze-kasuei buruzko azterketa.<br>J8.1 Lekualdatzeko oinarrizko baldintzak azaltzea.<br><br>J8.2 Kasuak aztertzea.<br><br>J8.3 Egin beharreko teknika aplikatzea. | 2, 5,6, 7 8, 9, 10, 11, 12 | 1 h.<br><br><br><br>0,25 h.<br>0,75 h. | | x | Idatzizko materiala azalduko da eta irudiak emango dira.<br>Kasuetan, UD honetan planteatutako lehen laguntzetako egoerak azalduko dira.<br><br>Talde txikitan, zer egin daitekeen aztertuko da.<br><br>Egindako praktika jardun-protokolo batean laburtuko da. | Immobilizatu eta lekualdatzeko tekniketan sakontzeko.<br>UDan ikasitako eduki guztiak bateratzeko.<br>Lortutako trebetasuna frogatzeko. | Apunteak.<br>Ikus-entzunezko materiala. |
| E6 Berariazko ebaluazio-proba. Idatzizko ariketa. | | 2 h. | | X | Proba egin aurretik, protokoloen eta apunteen errepasoa antola daiteke, aztergai dagoen materialaren tratamendua zertxobait etena izan baita.<br>Idatzizko ariketak hasietako galdera sortaren alderdiak jaso ditzake. | Ikasi dutena egiaztatzeko.<br>Ikasketan motibatzeko. | |

| OHARRAK |
| --- |
| • Jarduera praktiko guztiak, odolik ez badago eta egoera simulatua bada ere, modu guztiz errealean egingo dira, laneko arriskuen prebentziorako protokolo guztiei jarraituz.<br>• Simulazioetako batzuetan, garrantzitsua da ikasgelako kideekin praktikatzea, giza gorputza maneiatzen errazagoa baita. |

| 4. unitate didaktikoa: LARRIALDI MEDIKOETAN ETA BESTELAKO EGOERETAN LEHEN LAGUNTZAKO TEKNIKAK APLIKATZEA | Iraupena: 12 ordu |
|---|---|

*JE 1: Larrialdi batean laguntzaren hasierako balorazioa egiten du: arriskuak, eskuragarri dauden baliabideak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.*
*JE 2: Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.*
*JE 3: Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu. Horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.*
*JE 4: Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adieraztea.
2. Lesio edo gaixotasun mota eta dagokion jardun-protokoloa identifikatzea.
3. Patologia organikoen eta bestelako larrialdi medikoen aurrean lehen laguntzako teknikak aplikatzea.
4. Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztea.
5. Mobilizatu eta immobilizatzeko metodoak aplikatzea.
6. Pertsona posizio eta ingurune egokienean jartzea.
7. Komunikazioko eta laguntza psikologikoko teknika batzuk aplikatzea.
8. Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| PROZEDURAZKOAK | • Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak, agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.<br>• Kasuak kasu jarraitu beharreko protokoloak identifikatu eta deskribatzea.<br>• Bere eskumenaz kanpo aplikatzekoak diren teknikak identifikatzea. | | X<br><br>X<br>X | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Lesio fisiko, kimiko eta biologikoen, eta patologia organikoen ondorioz istripua izan dutenak zaintzeko teknikak. Jardun-protokoloak kasu hauetan:<br>  • Min torazikoa. Angina eta miokardio-infartua. Min abdominal akutua. Arnasteko zailtasuna. Asma. Gastroenteritisa.<br>  • Shocka. Deshidratazioak. Anafilaxia. Alergiak. Hozkak eta ziztadak.<br>  • Beroak eta hotzak eragindako lesioak. Izozketak. Erredurak. Elektrizitateak eragindako lesioak. Tximistek eragindako lesioak.<br>  • Zorabioak. Lipotimiak. Bero-kolpea. Garun-iktusa. Sintoma konbultsiboak. Epilepsia. Sukarra. Diabetea. Hipogluzemiak. Hipergluzemiak. Intoxikazioak. Drogak. Alkohola. | | X | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | • Larrialdi ginekologikoak eta obstetrikoak. Erditzeak.<br>• Gorputz arrotzak larruazalean, begietan, belarrietan eta sudurrean. Hortz-traumatismoak.<br>• Anatomiaren, fisiologiaren eta patologiaren funtsak. Sintomatologia. Lesioen ezaugarriak eta sailkapena.<br>• Arriskuak eta prebentzio-neurriak.<br>• Posizioak, immobilizazioa eta lekualdatzea.<br>• Komunikazioa eta laguntza psikologikoa. | X | | X | X |
| JARRERAZKOAK | • Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.<br>• Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duenarekiko tratuan.<br>• Istripua izan duenari jardunean zehar konfiantza emateko lasaitasuna eta interesa.<br>• Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan.<br>• Dituen konpetentzien esparruan jarduteko mugaz jabetzea. | | X<br>X<br>X<br>X<br>X | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J1 UDaren aurkezpena. | | 1 h. | X | | UDaren plana eta lan egiteko gidoia azalduko dira. | UD honen plana ezagutzeko eta denboralizazioa erabakitzeko. | Gidoia. |
| J2-E1 Kasuak aztertzea.<br><br>J2.1 Kasuak azaldu eta banatzea.<br><br>J2.2 Taldeko azterlana. | 1, 2, 4 | <br><br>0,5 h.<br><br>1,5 h. | X | <br><br><br><br>X | Jarduera hasteko, zenbait larrialdi-egoerei buruzko kasuak azaldu eta banatuko dira. Duten garrantziagatik nabarmendu beharreko kasuak hautatuko dira, eta kasuen osotasunak bidea emango du moduluaren eduki guztiak aztertzeko.<br>UD honetan planteatutako zenbait larrialditan ez da aplikatu beharreko *teknikarik*. Horietan, larrialdietako zerbitzuekin harremanetan jartzeko, argibideei jarraitzeko eta "itxaroteko" ideia landuko da.<br><br>Taldeak azterketa-materiala prestatuko du, sintomatologia, jardun-protokoloa, eman beharreko argibideak... barne direla.<br>Ondoren, egin beharreko praktika prestatuko du. | Nork bere kasa informazioa biltzeko.<br>Lehen laguntzak ematean erantzukizuna nork bere gain hartzeko. | Bibliografia.<br>Simulaziorako manikia.<br>Jardun-protokoloa. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J2.3-E2 Talde arduradunak praktikaren erakustaldia egitea.<br><br>J2.4 Ikasle guztiek praktika egitea.<br><br>J2.5 Bateratze-lana. | 3, 5, 6, 7, 8 | 7 h. | X (J2.5) | X (J2.3-E2)<br>X (J2.4)<br>X (J2.5) | Irakasleak, arian-arian, jarduera gainbegiratuko du, eman beharreko informazio garrantzitsuena zein den talde bakoitzari adierazteko.<br><br>Taldeak egindako lana eta idatzitako materiala aurkeztuko ditu.<br><br>Egoera horretan eman beharreko lehen laguntzak erakutsiko ditu, eta gainerako lankideen praktika zuzendu eta arteztuko du.<br><br>Irakasleak arreta jarri behar du gauza garrantzitsuenak adierazteko. "Kasu" bakoitza amaitzean, bateratze-lanean, informazio garrantzitsuena zein den adieraziko du, argibideak emango ditu, eta informazioa anatomiari, fisiologiari eta patologiari buruzko eduki orokorragoekin lotuko du. | Informazioa emateko.<br>Informazioa biltzeko.<br><br>Lehen laguntzak ematen trebetasuna lortzeko.<br>Lortutako informazioa finkatzeko.<br>Taldean egindako lana ebaluatzeko.<br><br>Lehen laguntzetako teknikak ezagutzeko.<br>Lehen laguntzak ematen trebetasuna lortzeko. | Apunteak eta lan-protokoloak.<br>Simulaziorako manikia.<br><br>Jardun-protokoloa.<br>Ebaluaziorako behaketa-gidoia. |
| E3 Berariazko ebaluazio-proba. Testa. | | 2 h. | X | X | Testa egin aurretik, irakasleak eduki garrantzitsuenak bildu eta errepasatuko ditu.<br>Ariketa test bat edo galdera motzak izango dira. | Edukiak ordenatu eta elkarrekin lotzeko.<br>Ikasi dutena egiaztatzeko.<br>Ikas dezaten motibatzeko. | Taldeek landutako apunteak. |

**OHARRAK**

- Litezkeen larrialdien zerrenda mugagabea da. Edukien atalean proposamen bat egiten da. Irakasleak proposamen hori zehaztu beharko du, heziketa-zikloaren, ikasle kopuruaren eta aintzat hartzen dituen bestelako egoeren arabera.
- J2 j arduerarako ezarritako iraupena (9 ordu) kasuen osotasunerako da. Jorratu beharreko egoeren kopurua erabakitzeko, taldekideen kopurua eta, ondorioz, praktikak egiteko beharrezko denbora kontuan hartu beharko da.

| 5. unitate didaktikoa: LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA KOMUNIKAZIO TEKNIKAK OSASUN LARRIALDIETAN | Iraupena: 6 ordu |
|---|---|

*JE 1: Larrialdi batean laguntzaren hasierako balorazioa egiten du: arriskuak, eskuragarri dauden baliabideak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.*
*JE 4: Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea, taldearen konfiantza lortzearren tolerantziazko eta enpatiazko jarrera agertzeak duen garrantzia baloratuz.
2. Pertsonalki komunikatzea, komunikazio enpatikoa eta asertiboa baliatuz.
3. Talde baten funtsezko elementuak eta taldearen egitura eta dinamika alda dezaketen faktoreak deskribatzea.
4. Taldeak dinamizatzeko eta horien funtzionamendua lortzeko teknikak aztertzea eta hautatzea.
5. Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen abantailak azaltzea.
6. Talde batean ager daitezkeen rolak eta horien arteko erlazioak bereiztea.
7. Talde-lanean banakako desberdintasunak errespetatzea, besteen iritziak eta taldeko akordioak errespetatuz.
8. Taldean komunikazioa oztopatzen duten elementu nagusiak identifikatzea.
9. Esku hartzeko estrategia desberdinak proposatzea, taldeko egituran eta funtzionamenduan lidergoak eta rolek betetzen duten funtzioa baliatzeko.
10. Eginkizunen banaketa definitzea talde-lana egiteko prozedura gisa; lanerako giro lasaia eta lankidetzazkoa lortuko da.
11. Talde baten egitura eta dinamika identifikatzea, teknika eta tresna egokienak erabiliz.
12. Gizarte-ikerketako eta ikerketa soziometrikoko teknikak erabiltzea eta ebaluazio-adierazleak hautatzea.
13. Profesionalak abiapuntutzat duen egoera pertsonala eta soziala autoebaluatzea eta prozesu hori dagokion lanbide-profilarekin erlazionatzea.
14. Informazioa jasotzeko tresnak diseinatzea eta datuak aldez aurretik ezarritako euskarrietan erregistratzea eta interpretatzea.
15. Hobekuntza ahalbidetuko duten egoerak eta jarraibideak identifikatzea; profesionalak landutako prozesuaren azken autoebaluazioa egingo da.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| PROZEDURAZKOAK | • Egoera desberdinetarako komunikazio-teknikak aplikatzea.<br>• Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatzea.<br>• Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoera kontrolatzeko erabili behar diren teknikak aztertu eta identifikatzea.<br>• Pazienteei eta familiakoei laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.<br>• Larrialdi-egoeren aurrean sentimendu pertsonalak identifikatu eta aztertzea.<br>• Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak aztertu eta identifikatzea. | | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| KONTZEPTUZKOAK | • Oinarrizko komunikazio-teknikak. Informazioa ematea. Komunikazioa errazten duten elementuak.<br>• Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Laguntza-beharra duten egoerak (larrialdiak, doluak, larritasuna, estresa...).<br>• Istripua izan duenaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Ezaugarri bereziak (urritasun sentsorialak, zahartasuna, buruko asaldurak...) dituzten pertsonak zaintzea.<br>• Erantzukizun pertsonala. Sekretu profesionala.<br>• Erreakzioak larrialdi-egoeren aurrean. Jarrera pertsonalak. | X | | | X<br>X<br><br><br>X |
| JARRERAZKOAK | • Istripua izan duenari jardunean konfiantza emateko lasaitasuna eta interesa.<br>• Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena.<br>• Errespetua eta zuzentasuna pertsonekiko tratuan.<br>• Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko. | | | | X<br>X<br>X<br>X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ir. | | | |
| J1-E1 UDaren aurkezpena. | | 0,5 h. | X | X | Hasteko, ikasleek larrialdi-egoeretan parte hartzen izandako esperientziak konta ditzakete. Jarduera informala izango da, ez da ezer zuzenduko eta parte-hartzea besterik ez da bilatuko.<br>Ondoren, UDaren helburuak eta haren garrantzia azalduko dira. | UDaren plana ezagutzeko.<br>Gaiaren inguruko sentikortasuna ebaluatzeko. | |
| J2 Azalpena: komunikazio-teknikak.<br><br>J2.1 Azalpena. | 1, 2 | 0,25 h. | X | | Azalpen laburra izango da, eta larrialdiekin lotutako alderdiak azpimarratuko dira (zer esan, nola, nori, noiz...). | Komunikatzeko eta informazioa emateko teknikei buruzko oinarrizko jarraibide batzuk ezagutzeko. | Ariketak. |
| J2.2 Ariketak ebaztea. | | 0,75 h. | | X | Ariketak komunikazio-egoera gisa planteatuko dira. Horietan, hainbat kasutan *zer edo nola egin*, eta *zer ez egin* ebatziko | Komunikatzeko eta informazioa emateko oinarrizko teknikei buruzko | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | da. | oinarrizko jarraibideak aplikatzeko. | |
| J3 Azalpena: laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. | 3, 4, 5, 6, 7 | 0,5 h. | X | | Azalpen laburra izango da, eta larrialdiekin lotutako alderdiak azpimarratuko dira. Irudi edo testuetako adibideak gaineratu daitezke. | Nola jokatu jakiteko.<br>Oinarrizko jarrera batzuk baloratzeko. | |
| J4-E2 "Role playing": komunikazioko eta laguntza psikologikoko egoerak. | 2, 3, 4, 5, 6, 7 | 2,5 h. | X | X | Jarduera hasteko, talde txikitan, talde bakoitzak egoerak antzeztuko ditu. Ondoren, behatutako jokabideak aztertuko dira. Antzeztu beharreko kasuak esanguratsuak eta denetarikoak izango dira.<br><br>Antzezpenean zehar, irakasleak jokabide batzuk erregistratuko diru (egokiak eta desegokiak, eta, azterketan, taldeari bere ondorioak azalduko dizkio. | Pertsonek egoera hauetan duten jokabidea kritikoki behatzeko.<br>Nola jokatu jakiteko.<br>Komunikazio-tekniken inguruan sakontzeko. | Antzezteko kasuak.<br>Jokabidea behatzeko eskala. |
| J5 Eztabaida: istripuetan eta larrialdi-egoeretan esku hartzen duten pertsonenganako ondorioak.<br><br>J5.1 Galdera sorta: sentimenduak eta emozioak.<br><br>J5.2 Azalpena: estresa, larritasuna, frustrazioa... gainditzeko laguntza-mekanismoak eta baliabideak.<br><br>J5.3 Eztabaida. | 5, 6, 7, 8, 9 | 0,25 h.<br><br>0,50 h.<br><br>0,75 h. | <br><br><br><br>X | X<br><br>X<br><br>X | Galdera sortan, gai pertsonalak jorratuko dira, hala nola, sentimenduak, arrazoiak... Banakakoa eta pribatua izango da (ez da zuzenduko).<br><br>Eztabaida pizteko, berriren bat irakurri eta hari buruzko galderaren bat egin daiteke. Informala eta bat-batekoa izango da, baina jokabide batzuk besteak baino egokiagoak direla azpimarratuko da. | Larrialdi-egoeretan sortutako sentimenduak eta emozioak ulertzeko.<br>Larrialdiek pertsonengan dituzten ondorioei buruz sakontzeko.<br>Komunikatzeko eta emozioak adierazteko gaitasuna garatzeko. | Galdera sorta.<br><br>Berriak. |

| OHARRAK |
|---|
| • UD honetan ezinbestekoa da egoerak antzeztea, jokabide batzuk behatu ahal izateko.<br>• Edukietako batzuk beste UD batzuetan azaldu dira. Horietan, istripua izan duten pertsonak nola tratatu ikasten joan dira. UD honi ekiteko, ikasgelan aurreko egoera batzuk bildu edo gogoratu daitezke, baina argi eta garbi azaldu beharra dago  komunikazio- eta laguntza-prozedura egokienak zein diren.. |

| 6. unitate didaktikoa: EGOERA KONPLEXUETAN LEHEN LAGUNTZAKO TEKNIKAK APLIKATZEA (EDUKIAK BATERATZEA) | Iraupena: 10 ordu |
|---|---|

*JE 1: Larrialdi batean laguntzaren hasierako balorazioa egiten du: arriskuak, eskuragarri dauden baliabideak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.*
*JE 2: Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.*
*JE 3: Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu. Horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.*
*JE 4: Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Laguntza antolatzea.
2. Laguntza emateko jardun-hurrenkera bereiztea.
3. Egoera konplexuetan lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.
4. Erabakiak hartzearen erantzukizuna onartzea.
5. Litezkeen jardunkideekin talde-lanean aritzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| PROZEDURAZKOAK | • Aurreko UDetan garatutako edukiak. | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | | | | | |
| JARRERAZKOAK | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J1 UDaren aurkezpena. | | 0,5 h. | X | | Irakasleak UDaren helburua eta denboralizazioa azalduko ditu. | UDaren plana ezagutzeko. | |
| J2 Kasuak aztertzea. | 1, 2 | | | | | | Kasuak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J2.1 Aztertu beharreko kasuak banatu eta azaltzea. | 3, 4, 5 | 0,5 h. | X | | Taldeari landu beharreko kasu guztiak ezagutzera emango zaizkio. Kasuak ondo ezaugarrituta egongo dira eta UDen edukiak jasoko dituzte.<br>Kasuek, beren osotasunean, moduluko eduki esanguratsuenak errepasatzeko bidea eman behar dute. | Taldearen lana antolatzeko eta gauzatze-epeak adosteko. | Kasuak.<br>Lehen laguntzetarako protokoloak eta modulu osoan erabilitako ikasmateriala. |
| J2.2 Kasuak aztertzea, gidoi bat erabilita. | | 7 h. | | X | Hasteko, azaldutako kasua talde txikian aztertuko da. Ondoren, taldeak antzezpena prestatuko du.<br>Fase honetan, ikasleek informazioa bere kasa bilatu behar dute. | Nork bere kasa informazioa bilatzeko.<br>Banaka eta taldean gogoeta egiteko.<br>Larrialdi-egoeran norberaren egitekoa bere gain hartzeko. | Kasuak.<br>Laneko gidoia. |
| J2.3-E1 Talde arduradunak lehen laguntzetako jardun baten erakustaldia egitea. | | | | X | Guztiz simulatutako egoera batean, lehen laguntzak emateari buruzko antzezpena egingo da. | Larrialdi-egoeran norberaren egitekoa bere gain hartzeko. Jarduteko zailtasunak esperimentatzeko. | Kasuak.<br>Lehen laguntzetako botikina eta materiala. |
| A2.4 Explicación de la actuación. | | | | X | Taldeak antzezten saiatu dena, jarraitutako jardun-protokoloa, arrazoiak eta inplikatutako erabakiak azalduko ditu. | Larrialdi-egoerak aztertzea. | |
| A2.5 Puesta en común y propuesta de mejoras por parte del profesor o de la profesora. | | | X | X | Guztien artean, behatutako jokabidea baloratuko da eta, hala badagokio, hobekuntzak proposatuko dira. | Larrialdi-egoerak aztertzea. | |
| E2 Berariazko ebaluazio-proba. Idatzizko ariketa | | 2 h. | | X | Modulu osoko kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak ebaluatu ahal izateko ariketa bat egingo da. | Moduluko gaitasunen finkatzea ebaluatzeko.<br><br>Garrantzitsua da egiaztatzea jardun-protokoloak gogoratzeko gai direla, eta horiekin lotutako jardun-sekuentzia eta jarrerak deskribatzen badakitela. | Idatzizko ariketa. |

| OHARRAK |
|---|
| • Kasuen kopurua taldekide kopuruaren araberakoa izango da. |